



## PRENTSA-OHARRA

# Tecnunek eta IK4k indarrak batu dituzte etorkizuneko ingeniariaren espiritu ekintzailea sustatzeko

- *Ingeniari Eskolak eta Aliantza Teknologikoak hezkuntzako lankidetzako hitzarmen bat sinatu dute gaur Donostian.*
- *Hitzarmenari esker, errazago transmitituko zaizkie ikasleei ekintzaitzarekin eta berrikuntza teknologikoarekin erlazionatutako ezagutzak.*
- *Proiektu teknologiko propio bat martxan jartzeko behar dituzten oinarrizko ezagutzak ikasleei transmititzea dute helburu bi eragileek.*

(Donostian, 2016ko abenduaren 2ean).- Hezkuntza-alorrean ekintzaitza sustatzeko asmoz, [Tecnun-Donostiako Ingeniaritzako Goi Eskolak](#) eta [zentro teknologikoen IK4 Aliantzak](#) hezkuntzako lankidetzako hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean. Haren bitartez, ekintzaitzarekin eta berrikuntza teknologikoarekin erlazionatutako ezagutzak zenbait ingeniariatzako ikasleei transferitzea bultzatuko da.

Raúl Antón Tecnuneko zuzendariak eta José Miguel Erdozain IK4 Aliantzako zuzendari nagusiak sinatu dute hitzarmena gaur goizean, eta, haren bidez, aurreikusten da elkarrekin antolatzea eta kudeatzea ekintzaitza-arlo bat,

proiektu teknologiko propio bat martxan jartzeko behar diren oinarritzko ezagutzak ikasleei irakasteko.

Hitzarmenaren esparruan, IK4k aukera izango du aktiboki parte hartzeko Nafarroako Unibertsitatearen ingeniari-eskolan garatutako ekintza batzuetan, eta hori, aldi berean, baliagarria izango da zentro teknologikoetako errealitatea ikasgeletara gerturatzeko.

Hala, IK4k ingeniari-eta-ekintzaileen Klubak astero antolatzen dituen hizketaldien zikloa programatzen kolaboratuko du. Klub horren helburua da ekintzaileen eta oinarri teknologikoko *spin offen* testigantzen bidez ikasleak motibatzea beren ideietan oinarrituta proiektuak martxan jar ditzaten.

Halaber, hitzarmen horren bidez hitzaldi batzuk elkarrekin jarri nahi dituzte martxan, berrikuntzaren eta ikerketaren mundua Tecnuneko ikasleei gerturatzeko. Zentro teknologikoetako, arrisku-kapitaleko enpresetako eta abarrek ordezkariak emango dituzte hitzaldiok. Zortzi-hamar hitzaldi ematea aurreikusten dute, eta hainbat gai lantzea, hala nola patenteen sorrera eta enpresa eratorrien sorrera.

Horrez gainera, IK4k, Tecnunekin batera, Ekintzailetza Astea antolatuko du Madrilgo IESE Business School-en, non ingeniari-eta-ekintzaileen mailako ikasleek parte hartzen duten.

Asmakuntza eta Diseinua lehiaketaren XI. ediziorako eta hurrengoetarako Tecnun IK4 Saria sortzea ere jasotzen da hitzarmenean. DBHko 3. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzako da lehiaketa hori, eta etorkizuneko ikasleen sormena eta ideia-garapena eta talde-lana sustatzea du helburu.

“IK4k hezkuntza-alorra eta enpresa-mundua gerturatzearen alde egiten duen apustua indartzen du hitzarmenak”, adierazi du Erdozainek.

#### **IK4ri buruz**

IK4 aliantza teknologikoa bederatzi zentro teknologikok osatzen dute (AZTERLAN, CEIT, CIDETEC, GAIKER, IDEKO, IKERLAN, LORTEK, TEKNIKER eta VICOMTECH), eta bere helburua da ezagutza zientifiko-teknologikoa sortzea, eskuratzea eta transferitzea, enpresen lehiakortasuna eta gizartearen aurrerapena hobetzeko.

#### **Tecnuni buruz**

Nafarroako Unibertsitateak Donostian duen TECNUN-Ingeniaritzako Goi Eskolak etorkizuneko ingeniarien trebakuntza profesionala, zientifikoa eta

gizatiarra bultzatzen laguntzen du. 1961eko urtarrilean sortu zenetik, irakaskuntzaren, ikerketaren eta gizartearekiko zerbitzuaren arteko orekari eusten dio, eta jarduera horiek elkarren osagarri izan daitezen ahalegintzen da.